

Manifestazioak eta eraginak

Deia, 1977-09-09.

Talde batzuk, besteak baino errezagorik urtetan dira kalera.

Hau jakina da.

Baina errezagorik kaleratzen diren talde eta alderdi politikoak izan behar dute herriari deia egiteko arrazoiren bat. Batzuk, arrazoi honeri "aitzaki" izena ematen diote, baina "aitzaki" batek "arrazoi" biurtzeko ere egokiera bat behar du.

"Egokiera" hau da reflexio honen gaia.

Madrid-eko egunkari batek esan du editorial bidez euskaldunok askotan Madrid-eri behin eta berriz esan dioguna: gure herriaren gainezka hoiek ebitatu nahi ba dituzute, ez itzazute honerako indar itxu-baldar-gaiztoak bidali, bidali zazute entzun eta pentsa eta ekintza-bideak irekiko dituen norbait.

Ez mila. Bat da nahikoa. Baina sineskarri den nonbait.

Hainbestetan engainatu gaituzte!

Eta gero, noski, argi eta garbi justiziazko dena, dena dela, aitor zazute, eta aitortzen duzutena ekintzaz bete zazute.

Hemen ez dago beste biderik.

Demokrazi moduko zerbait nolabait montatu nahi bada behintzat.

Ba da, noski, ezer eraiki baino, dagon itxaropen pixka ere herrautsi nahi duena. Bai baino gehiago, agian. Ez gehiegi, hala ere, nik uste. Ez dugu geok delako hori puztu behar. Eta azpi-eraginak ez dira beti ezkerretik etorriko, kontra-muturreko eskuina ez da hortik urrun ibiliko. Baina, dena dela, eta gutxi edo asko dela, egitazko eraginak, justiziazkoak eta gure herritasunaren erroetan daudenak kentzen bazaizkiz, berez etorriko dira goitik behera, eta delako hori hustuko da.

Egin dezala Madrid-ek proba.

Euzkadik ba ditu gaur ukatu ezin zaizkion eskakizun batzuk: Amnistia, osoa eta behinbetikoa; alderdi guziena ezagutza. Askatasuna eta Autonomi bat. Catalunya-ren antzeko tratamendu baten bitartez.

Serioski.

Seriotasuna erakusten duenarekin ba dakigu euskaldunok seriooki jokutzen. Gure herriak ba daki serio dena eta ez dena bereizten. Botoak erakutsi dute zerbait.

Baina egi-egitan eta oinharrietatik gora balio duena jasotzen hasten ez garan bitartean, hemen denok izango dugu arrazoibide hori aipatu eta herriari kalerako deia egiteko "aitzakia"-ren egokiera.

Talde batzuk, besteak baino gehiago.

Eta herri-herria arrazoiz eta justiziaz asetzen ez den bitartean, izango dute erantzuna.